

OPE
2007



2007ko
LEP

KODEA Lanpostua/k:

C-1150

TXISTU IRAKASLEA

1. ariketa. 2. proba

GALDERAK

Denbora, gehienez: 90 min.

EREDUA:

C

- Ez zabaldu esan arte.
- Proba bukatzean inprimaki hau zeurekin eraman dezakezu.
- Kontuan izan galdera bakoitzaren balioa, eman bazaio.
- Adi egon, identifikazio pertsonalerako txartela jaso diezazuten.
- Ez ahaztu ordezkagiria hartzea (irakurketa optikorako inprimakiaren beheko ezkerreko zatia).
- Adi egon, batera grapa ditzaten irakurketa optikorako orria, azaleko inprimakia eta zure erantzun-orriak.

Eskerrik asko zure laguntzagaritik.

Galdera	Balioa	Galderaren idazkuntza. TXISTUA
1	2	Adierazi txistu erreperatorioko musika lan hauen ezaugarri komunak: <i>“Euskal Bilera”</i> . <i>“Ollagorra”</i> . <i>“Kanoietan”</i> .
2	2	XVIII. eta XIX. mendeetako kronisten arabera Gasteizko jaietako meza nagusiaren ondoren dantzatzen zen <i>“Zortziko serioa”</i> ren birsorkuntza da <i>Gasteizko Zortzikoa</i> . Horri gagozkiolarik, adieraz ezazu: <ul style="list-style-type: none"> - Urteko zein egunetan eta zein lekutan jotzen den, 2004az geroztik. - Zeini dagokion egun horretan eta leku horretan musika jotzea. - Zerrenda itzazu, jotzen diren hurrenkeran, dantza osatzen duten doinu eta erritmoak.
3	2	Resurrección María Azkuek, <i>“Cancionero Popular Vasco”</i> obraren lehen liburukian, honela sailkatzen ditu musika-folkloreko abestiak: <i>“ez printzipio teknikoen arabera, abesti bakoitzaren testuaren arabera baizik, hori baita, azken batean, agerikoa den gauza bakarra”</i> . Zerrenda itzazu Lekeitioko folkloristak irizpide horren arabera bere obran sartzen dituen abesti mota desberdinak.
4	1	Aipa itzazu txistuak, lehenengo posizio diatonikotik abiatuta, serie harmonikoan sortzen dituen lehenengo sei soinuak.
5	1	Aipa itzazu beren baitan gutxienez ezpata-dantza erritmo bat hartzen duten hiru dantza-ziklo; adierazi jatorria eta azaldu laburzki.
6	1	Eltziegoko gaita-jotzaileek Villabuenako hainbat dantza jaso zituzten 1987ko <i>“Arabako Dantzak”</i> diskoan. Zerrenda itzazu.
7	1	Aipa itzazu, kronologikoki, Gasteizko Udaleko txistulari bandak 1914tik gaurdaino izan dituen zuzendariak, eta adierazi zein urtetatik zein urtetara aritu zen bakoitza lan horretan.
8	2	José Ignacio Ansorenak, Txistu Gozoa obraren lehenengo mailan, bi arnasketa mota bereizten ditu haize-instrumentuen jotzaileentzat, musika-esaldian hartzen duten lekuaren arabera. Adierazi zein diren eta bereizten dituzten ezaugarriak.
9	2	<i>Ostegun gizona</i> festa aldakorra da egutegian. Azaldu ezazu, arrazoituz, nola zehazten den zein egunetan ospatuko den. Laburbildu festa ekitaldiak eta funtsak.
10	2	<i>Olarizu eguna</i> jaiegun aldakorra da egutegian. Azaldu ezazu, arrazoituz, nola zehazten den zein egunetan ospatuko den. Laburbildu festa ekitaldiak eta funtsak.
11	2	Euskal Herri osoko hainbat dantza biltzen dituen izen orokorra da <i>soka dantza</i> . Horri gagozkiolarik: a) Adierazi multzo horretako dantzen gutxienez hiru ezaugarri komun. b) Adierazi mota horretako sei dantza, gutxienez lau lurralde historikotan ageri direnak; zehaztu lurraldea eta, modurik izanez gero, herria.
12	1	Jesús Guridi musikagile gasteiztarrek herri kantutegiko gaiak aintzat hartuz idatzi zuen <i>“Diez melodías vascas”</i> obra sinfonikoa. Adieraz itzazu hamar doinuen izenburuak, eta horietako bakoitzaren esanahia.
13	2	Udal Folklore Akademiaren urteroko zabalkunde-programazioetako bat da <i>“Dantza plazan”</i> . Adierazi helburuak eta edukiak, eta egutegian nola banatzen den.

Galdera	Balioa	Galderaren idazkuntza. TXISTUA
14	2	San Joan festen hasiera dela eta, ekainaren 23an, goizez, Biasterin ospatzen diren protokolo-ekitaldiei gagozkielarik, azaldu ezazu zer parte-hartze duten musikari eta dantzariak ekitaldi horietan.
15	1	Euskal Herriko Txistulari Banden Txapelketa irabazi zuen Gasteizko Udalaren txistulari bandak 2002ko urriaren 26an, Erreterian. Aipa itzazu egun horretan banda osatzen zuten txistulariak, eta esan zer paper jo zuen bakoitzak.
16	1	Donostiako <i>Grupo Experimental de Txistu</i> delakoak txistuaren familiako instrumentu multzo bat erabili zuen –zenbaitetan baita sortu ere– joan den mendeko hirurogeita hamarreko lehenengo urteetan. Zerrenda itzazu, baxuenetik hasi eta zorrotzenarekin bukatu, eta adierazi bakoitzaren afinazioa, bertsio unibertsean.
17	1	Gaita edo dultzaina bati gagozkielarik, adieraz itzazu horren tesitura osoak hartzen dituen notak, baxuenetik zorrotzenera.
18	1	Aipa itzazu trikitixa taldean esku hartzen duten edo tradizioan esku hartu izan duten gutxienez lau musika-tresna.
19	2	Idatz itzazu ‘folklore’ eta ‘folklorismo’ hitzen definizioak, Josep Martí Pérez etnomusikologo kataluniarrak “ <i>La tradición evocada: Folklore y Folklorismo</i> ” lanean dioenaren ildotik.
20	1	1826. urtean argitaratu zen Juan Ignacio Iztuetaren doinu liburua, bi urte lehenago argitaratutako Gipuzkoako dantzei buruzko lanaren osagarri. Hain zuzen ere, berrogeita hamabi doinu argitaratu zituen. Zerrenda itzazu gutxienez hamabi.
21	2	Idatzi lerro banatan ondorengo erritmo eta dantza tradizional hauetako bakoitzari danbolinarekin laguntzeko oinarrizko erritmoa: Fandangoa, Arin-arina, Biribilketa, Zortzikoa, Ezpata-dantza, Alkate soinua, Kontrapasa, Idiarena.
22	2	<i>Erregelei</i> gagozkielarik, azaldu honako hauek dantzaren baitan dituzten funtzioak: Aureskua, Atzeskua, Zerbitzari edo Maiordomoak.
23	2	Dantza tradizionalen ikuskizun batean interpretatuko diren dantzen aurkezpen gisa hauxe entzun dugu: “ <i>Ondoren, Arabako Uruñuela herri politeko Kontrapasa ikusiko dugu</i> ”. Egizu ikusiko den dantzaren iruzkina.
24	2	Azaldu <i>gaita charra</i> edo salamancarraren eta <i>gaita nafarraren</i> arteko antzekotasunak eta desberdintasunak.
25	2	Egizu Aita Donostiren aipamen biografiko laburra.